

DEBA

Itziarko jaien balorazio positiboa egin dute herriko Auzo Udaletik

Kopraixak izaera herrikoia duten festak izan dira beti, eta aurtengoan ere erakutsi dute herritarrek lanerako gogoia eta indarra

ANDER SALEGI

DEBA. Bi urteren ostean, abuztuaren 6tik 10era bitartean ospatu ziren Kopraixak Itziarren. Egun batzuk igaro ondoren, Itziarko Auzo Udalak jaien balorazio bat egiteko denbora izan du. Positiboki baloratu dituzte aurtengo festak. Etenaldia gogorra izan den arren, indarberrituta ekin diote la aitortu du Arantza Egaña Itziarko auzoalkateak. Lanerako eta festarako gogoia izan da nagusi, eta eguraldia lagun izan dutenez, gau eta egun ez da zer ikusirik eta non ibilirik falta izan.

Aipagarria da izan den jende andana, inguruko herrietatik ere bisitari ugari izan direlarik. Urtero legez, adin guztietarako ekitaldiak izan dira, erromeri, kontzertu, txikiei eta gazteei zuzenduriko ekintzak... Egunez egun, eta herritarren parte hartze aktiboari esker, programa aurrera eramatea lortu da. Kopraixak izaera herrikoia duten festak izan dira beti, eta aurtengoan ere erakutsi dute herritarrek lanerako gogoia eta indarra.

Nabarmenezkoa baita ere gazteen parte hartzea. Aurtengoan, orain arte gazteen lokala izan den Zentroaren hutsunea, elkarlanean dotore prestaturiko Tranpapeak ederki bete du. Lokalaren prestaketaz eta kudeaketaz gazteak arduratu dira Itziarko Auzo



Gazteak giro ederra jarri dute Kopraixetan. ARGAZKIAK ANDER SALEGI



Jende ugari ibili da jaietan eta giroa lagun izan da.

Udalaren babesarekin, eta bai bete lan hori ere gogoz eta ilusioz. Elkarlana indartu du ekimen honek, eta urtean zehar

ekintza ezberdinak antolatzeko babes ekonomiko bat ere eman dio sortu berria den Itziarko Gazte Asanbladari.

«Horrek ilusioa pizten du datorren urtekoeri begira eta eskerrikasko ematea besterik ez dugu, herritarrei egindako lanagatik eta bertaratutako guztiei, errespetuz jokatu dutelako», dio Arantza Egañak.

Asfaltatze lanak

Herri sarrerako aparkaleku publikoaren eta hortik gorako bidearen asfaltatze lanei ekingo diote astelehenean, abuztuaren 29an. Lehenengo bi egunetan behean ariko dira eta ondorengo bi egunetan Burugorri parean izango dira. Trafikoa bertakoentzat moztuko ez duten arren, zenbait eragozpen izango dira eta egun horietan kontuz ibiltzeko eskaera egin du Itziarko Auzo Udalak.

MENDARO

Oporren ostean, mendarotar askok berriro bueltatu dira herrira

AMAGOIA ZABALA

MENDARO. Poliki-poliki abuztua badoa eta ti-ta batean abuztuko azken astebukaerara iritsi gara. Opor ostean errutinara bueltatu beharra dago eta astelehenean asko izango dira lanera bueltatuko direnak nahiz eta oraindik hiru egun geratzen diren hilabetea bukatzeko.

Jendea herrira hurbiltzen ari dela nabaria da, izan ere kaleetan zehar abuztu erdialdeko egunetan baino askoz ere kotxe gehiago ikusten dira. Ala ere, beste urtetan baino jende gehiago egon dela herrian dirudi, hiru auzoetan taberna bana zabalik egon dira eta taberna horiek jendearen elkar-guneak izan dira. Bestalde, herriko hainbat dende ere ez dituzte ateak itxi eta beraiekin batera, beste zerbitzu batzuk ere irekita egon direnez herriak ez du hildako irudia izan.

Uda, aspaldiko onena izan da baita ere eguzkia eta beroari dagokionez eta horrek, hondartza egun asko izateak eragin du, kanpora, eguzki bila joan beharra desagertaraziz.



Herriko enparantza. A.Z.

MUTRIKU

Danborzaleak mugimenduak elkarretaratzera deitu du biharko

Babes dikea luzatu edo ez erreferendumean erabakitzea eskatzen dute

A. GORRITIBEREA

MUTRIKU. 'Zelako Mutriku nahi duzun erabakitze eskubidea duzulako, babes dikea luzatu edo ez, erreferenduma orain!' lelopean bihar igandez, 12:30ean, Mutrikuko hondartzeko sarreran egingo den elkarretaratzera deitu du Danborzaleak mugimenduko kideak.

Hiru puntutan oinarritzen du deialdia mugimenduak. Lehena,

2004an martxan jarri eta ia 20 urtez geldirik egon den 'Plan Especial del Puerto de Mutriku' berrabiaratzea ekidin nahi dute.

Bigarrena, irailean hastekoak diren lanak babes-dikearen luzatzea soilik aurreikusten duten arren, kirol-portu berri baten eraikitzea, hondartza eremuaren pribatizazioa, Danborra, Moilaberri, arranpla, betiko igerilekua eta ingurumen naturalaren suntsipenaren jarraipena dela salatu nahi dute.

Azkenik, herri galdeketa bat deitu dezatela eskatzen diete eragileei, Eusko Jaurlaritzari zein

Udalari, eta eskakizun hori bideratzeko, antolatu dute biharko elkarretaratzea.

Arrauna eta futbola

Kirol alorrean bi zita daude gaurkoan, batetik, 17:30ean Colindres-ko Asón ibaian jokatu den lehen play-off-a, non Mutrikuko traineruak parte hartuko duen Camargo, Busturialdea eta Donostiarra ontziekin batera; eta 18:00etan, San Migel futbol zelaian jokatu den 33. Juan Jose Egia 'Rubio' oroimenezko futbol partida, Mutriku eta Zumaiako taldeen artean.

ERMUA

Ermua, incluída en el Catálogo de Buenas Prácticas Urbanas

K. ITURRIAGAGOITIA

ERMUA. El Ministerio de Transportes, Movilidad y Agenda Urbana incluye a Ermua en el Catálogo de Buenas Prácticas Urbanas en el marco de los objetivos de la Agenda Urbana Española.

El catálogo recoge el proyecto estratégico del Ayuntamiento 'Ermua Ciudad Amigable con las Personas Mayores', en marcha desde 2016. El proyecto en cuestión ha permitido que en 2021 se hayan planteado diversas propuestas de mejora que el Consistorio tratará de abordar para buscar soluciones a las dificultades

detectadas por un grupo de vecinos mayores de 60 años, denominado 'grupo motor'. El plan de Ermua ha sido incluido junto a otras 65 experiencias de agenda urbana del Estado.

Este 'grupo motor' ha propuesto fomentar el uso de los parques saludables, haciéndolos más dinámicos, mejorar la accesibilidad al centro de salud, promover el buen estado de las marquesinas de autobús, creación de aparcamiento público en determinadas zonas, o facilitar la comprensión de la información ofrecida desde la administración, entre otras debilidades a mejorar.